GUAIXE.EUS

PRES TOKIKOM

Egiarretako festak, gaur hasi eta igandera arte

Agenda >> 2

Uharte Arakil-Beriain VII. KM Bertikala igandean, 10:00etan, jokatuko da. 205 parte-hartzailek eman dute izena



Kirolak >> 11

Euskahalduntzeko tokia eta garaia

>>3-16

AEK-ko Sakanako irakasleak euskaltegi berrituaren atean. Gaur, 19:00etan, mustuko dute euskaltegia. Euskara ikasteko izen ematea asteazkenera arte dute zabalik.

Karasatorre Mank-eko presidente lau urtez

>>7

Hondakinak erretzeko baimena iraungita

>>9

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke: 3035 0018 47 0181012564

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.
• Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
• Balkoien eta terrazen itxitura
• Kolore guztietako mallorkinak
• Konpromezurik gabeko aurrekontua
info@dekovennavarra.com · www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860

Begoña
ZORIONAK!! Izugarri maite zaitugu. Muxu pila bat Dani, Aingeru eta Unaxen partez.

Saioa
ZORIONAK potxola!! Etxarriko neskarik jatorrena , sorgina!! Beti aurrera!! Ikaragarri maite zaitugu. Muxu asko denon partez. Amakux.

Obats
ZORIONAK pottoka! Bederatzi kandela itzali beharko dituzu oraingo hontan. Birikak ongi bete eta putz egin. Zoriontsua izan. Muxuak.

Jon Ducar Gerrikagoitia
ZORIONAK potzolo! Maite zaitugu .

Iraia Lopetegi Etxeberria
ZORIONAK pottokina!! Dauneko 2 urte enttuzu!! Zuri begira pasa zaigu denbora, zure diablurasak ikusten. Mila muxu Lizarrengo eta Arbizuko familien partetik.

Bazkideek deskontua

Bakarra: 4,00€

Bazkideek: 3,50€

irailak 18-24

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Antzerkia

Mitad y mitad. Irailaren 18an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Jose Ramon Soroiz eta Iker Galartza.**

Erpurutxo. Irailaren 20an, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Teatro Paraiso.**

Ikuskizuna

Alucina. Irailaren 19an, larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Jorge Astyaro.**

Mendi irteerak

Ollo-Lizarraga. Irailaren 20an, igandean. Iratxo mendi elkartea.

Satrustegi-Txurregi. Irailaren 20an, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Gasteizko urtegia-Altsasu. Irailaren 19an, larunbatean, 9:30ean Altsasuko kultur gune paretik. 108 km. **Zikloturista taldea.**

Marutegiko gaztelua. Irailaren 20an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 40 km. **Barranka txirrindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Hitzaldiak

Gaixorik eta preso edo iheslari. Irailaren 18an, ostiralean, 20:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Hizlariak: preso ohi bat eta gaixo dauden bi presoren anaiak.**

Saroiko lezea: Urbasako hiltegia. Irailaren 19an, larunbatean, 11:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Hizlariak: Balbino Garcia de Albizu eta Amaia Urkijo, 36an eraildakoen ilobak eta ikertzaileak.**

Salud y bienestar. Estimulación neuronal. Irailaren 22an, asteartean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

«Saroiko lezea: Urbasako hiltegia» hitzaldia izango da bihar 11:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean.

Disfrutar con seguridad en la montaña. Irailaren 24an, ostegunean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Hizlaria: Alberto Zeberio, larrialdietako hezitzailea eta mendi teknikaria.**

Tailerrak

Pertsona dependenteak nola mugitu; altxatzeko, lekualdatzeko eta mugitzeko aholkuak. Irailaren 22an, asteartean, 18:00etan Iortia kultur gunean. **Hizlariak: Itziar Iturrioz (erizaina) eta Eneka Lizarraga (erizaintzako-laguntzailea).**

Sushi. Irailaren 23an, asteazkenean, 19:00etatik 21:00etara Olatzagutiko kultur etxean. 18a izena emateko azken eguna.

Bestelakoak

Itsasi euskaltegiaren mustutzea. Irailaren 18an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gartzia Ximenez kaleko 46.an. **AEK.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 18an ostiralean, 20:00etan Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 20an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Hauteskunde orokorraz. Irailaren 22an, asteartean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **EH Bildu, Sakanako batzar irekia.**

FESTAK Egiarreta:

Asteburuan, festak!

>> Irailak 18, ostirala
15:00etan Herri bazkaria.
16:00etan Migel eta bere akordeoia.
17:00etan Mus, briska eta partxis lehiaketa.
17:00etan Erronda alternatiboa.
17:30ean Puzgarriak eta buruhandiak.
18:00etan Festak hasteko suziria.
20:00etan Dantzaldia Modestorekin.
22:00etan Herri afaria.
23:59an Kontzertua: Desperdizio.
1:00etan Dantzaldia Modestorekin.

>> Irailak 19, larunbata
11:30ean Jokoak, puzgarriak eta buruhandiak.
13:00etan Bermuta.
17:00etan Puzgarriak eta buruhandiak.
18:00etan Gorriti eta bere animaliak.
19:30ean Dantzaldia Modestorekin eta txokolate-jatea.
22:00etan Gazte-afaria.
23:59an Kontzertua: Txep.
1:00etan Dantzaldia Modestorekin.

>> Irailak 20, igandea
11:00etan Meza.
12:00etan Otamena eta herriko helduei omenaldia.
12:30ean Bermuta.
12:30ean Puzgarriak eta buruhandiak.
18:00etan Harri jasotze erakustaldia: Inaxio Perurena.
19:00etan Mariatxiak.
20:30ean Tortilla eta txistorra dastatzea.
21:30ean Hau pena nik!

ezkaatza >>

SAKANA

Euskahalduntzeko tokia eta garaia

AEK-k Altsasuko euskaltegiaren berritzea eta handitzea mustuko du gaur, 19:00etan. Euskara ikastaroetan izena emateko epea asteazkenera arte zabalik dago

Hizkuntza biziberritzeko ezinbestekoa da euskaldungoa haztea. Horretarako, azken KORRIKAko leloak zioen moduan, euskaharldundu beharra dago: dakienak euskara erabiliz eta ez dakienak ikasiz; ikasteko eta erabiltzeko eskubidea bermatuz, besteak beste. Horretan aritzen dira euskaltegietan: helduei euskara irakasten eta euskarari ahots berriak ematen.

Otsailean 20 urte beteko dira AEK-ren Itsasi euskaltegia mustu zela Altsasuko Gartzia Ximenez kaleko 46. zenbakian. Makina bat jende pasa da orduz geroztik handik. Baina denbora pasa ahala AEK-ko kideak euskaltegia zahartzen ari zela konturatu ziren. Berrikuntza premia zuen. Klasea emateko azpiegitura txukuna bazen ere, bilerak egin eta bestelakoetarako toki falta zuten euskaltegian. Bestalde, krisialdiak ez du matrikulazioan jaitsierarik ekarri eta ikasle kopurua nahikoa orekatua izan da azken urteetan.

Lehen gau eskola izena hartzen zuten helduendako euskara klaseek. Azken lau urteetan Itsasi euskaltegian ikasle gehienak goizez izan dituzte. Goizez lekurik gabe ere izan dira, horregatik, irakasle gela ere ikasgela bihurtzen zuten. AEK-ko zuzendaritzari argudio horiek guztiak eman eta euskaltegia berritu, handitu edo lekuz aldatzea proposatu zioten Sakanatik. Azkenik, beheko bajera erosi zuten, moldaketa handia egin eta orain arteko euskaltegia eraberrituz. Behean: bulegoa, irakasle gela, bitan banatu daitekeen ikasgela handia daude, goian, berriz, lau ikasgela eta bi txikiagoak.

AEK-k hizkuntzaren aldeko lasterketan lortutako diruaren zati bat Sakanarako euskaltegiaren eraberritzera bideratu da. Ibarrean aurreko ikasturtean 135 ikasle eta 7 irakasle izan ziren. Ikasle gehienak emakumezkoak dira. Jubilatuak ere gero eta gehiago animatzen dira.

Ikus 11 galdera.

Nafarroako AEK-k bere matrikulazio kanpaina Altsasuko euskaltegi berrituan aurkeztu zuen.

Izen ematea

AEK-n izena eman nahi duenak Itsasi euskaltegitik pasa daiteke (10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara), sakana@aek.eus e-postara idatziz edo 948 468 258 telefonora hots egin dezake. Ikasketez, ordutegiez eta Mank-en dirulaguntzen berri ematen dute. Irailaren 23ra arte eman daiteke izena.

Sakanako helduen euskalduntze alfabetatzearen **historia laburra**

1968-03-01 Altsasun Dabid Martxuetak eta aita J. Beizamak 80 ikasleri klase ematen hasi ziren. Bi taldetan banatuta zeuden. Antzekoa gertatu zen Sakanako hainbat herritan.

1969ko udazkena Altsasun helduendako ikastaroei berrekin zieten.

1975-11-06 Altsasuko Gure Etxea elkarteak euskara ikastaroetan izena emateko epea zabaldu zuen.

1980ko hamarkada AEK-k Lakuntzan eta Etxarri Aranatzen barnetegiak izan zituen.

1986 Euskaltegia jartzeko AEK-k Altsasuko San Juan kalean etxea erosi zuen.

1989 UGTk Constantino Salinas euskaltegia sortu zuen.

1990 Bakaikun barnetegia sortu zuen Bilboko Zenbat Gara kultur elkarteak.

1991ko lastaila Euskaltegia konpontzeko asmoa zuelako, AEK-k Altsasuko San Juan kalean zuen egoitza utzi eta udalarena zen Gure Etxea eraikinean kokatu zen.

1996-02-16 AEK-k Altsasuko Gartzia Ximenez kalean Itsasi euskaltegia mustu zuen.

2015-09-18 AEK-k Itsasi euskaltegiaren handitzea eta eraberritzea mustu du.

» Arbizu

Udalak ez du FyT-ren epaia errekurrituko

Arbizuko alkate Karmele Marañon Chascok jakinarazi digunez, udalak ez dio Falange y Tradición taldeko kideen epaiari helegiterik aurkeztuko. Espainiako Auzitegi Nagusiak epaitu zituen eta taldeko hiru kide sabotajeak eta mehatxuak egiteagatik zigortu zituen. Baina ez terrorismo delituagatik. Epaian jaso denez, zigortuek Arbizuko Udalari 1.500 euro ordaindu beharko dizkiote eta mehatxatuak izan ziren pertsona bakoitzari beste 1.000na euro. Horretaz aparte, epaiketaren kostuak haien bizkar gelditu dira.

Mehatxu delituagatik zigortutakoak dira: Jose Ignacio Irustari bi urteko espetxe zigorra eta Javier Lopez Monreali eta Borja Perez Illerari urte eta erdikoa. Aurrekaririk ez dutenez bat bera ere ez da espetxera joanen. Espainiako Auzitegi Nagusiko epaileek frogatutzat jo dute hirurek memoria historikoko oroigarrien kontra eta mehatxuak egin zituztela. Baina fiskaltzak eta akusazioek eskatu bezala delituak terrorismo gisa izendatzea epaileek ez zuten egoki ikusi.

Gertaerak

2009ko agorrilaren 20an Arbizun egindakoa dago epaitu dien gertaeren artean. Lau zinegotziren izenak eta haien kontrako heriotza mehatxuak ("orain zelatan, bihar hilko zaituztegu") agertu ziren idatzita Arbizuko udaletxeko fatxadan. Aldamenean Falangeren logotipoa eta "Otsaportillo 1936.Gora Barandalla!" idazkia zeuden. Gerora Falange y Tradición taldeak bere gain hartu zituen Euskal Herrian egindako 25 eraso, baina zerrendatu gabe. Urte hartako lastailaren 23an atxilotu zituzten taldeko bost kideak.

astekoa

Bere herria nekez uzten du...

Zoila Berastegi

Enarek hotza dakarte. Izokinek ibaietako ura baino, nahiago izaten dute itsasoko ur gazia arraultzak erruteko. Zikoina zuriak Europa erdialdea atzean uzten du Afrika tropikala zerumugan. Berotasunak, babesak, elikadurak edota ugaltzeak abizen berdina dute: Beharra. Eta beharrak mugiarazten du animalia batetik bestera. Orain hemen eta bihar han. Hegaldia luzea eta gogorra izango da, baina funtsezkoa bizirauntnahi bada. Hori badaki benarriz arruntak, eta bere 11cm-ak nahikoa ditu abiadura biziz milaka kilometro egiteko.

Eta benarrizak bezala, gizakiak ere jakin badaki. Badaki atzean utzi duen herriaren usainaz, hilotz kiratsaz. Badaki hegazkinetik botatako lehergailuak lurrarekin talka egin aurretik egiten duen soinuaz. Badaki plater bi lez irekiak, ezin itxi, geratu diren begiek ikusi dutenaz. Badaki etxekoaz testigu izan diren horma erorien agurraz. Badaki baita ere, jasotako hautsak ez diola arnasten utziko; ezingo duela gehiago argirik ikusi. Badaki bere niniak ez duela negar egitez utziko, eta berak, aldiz, ezin izango duela inoiz gehiago negar egin, ez oihu, ez hitz. Gizakiak badaki. Eta horregatik, benarrizak bezala, beharra soinean, abiatzen da.

Bidaia arriskutsua da gizakiarendako, irentsi dezakeen Itsaso bat dagoelako; korapila dezaketen hesiak; ukiezinak diren harresiak… Baina bada okerragorik: ukazioaren begirada bortitza da; hotza; krudela. Begirada horrekin gurutzatuz gero izoztu egiten da gizakia, eta pauso geldoko gorpu batek egingo du bidaiaren azken txanpa. Ez da inoiz bere herria atzean utzi zuen pertsona hura izango iritsiko dena. Horretan bai, horretan desberdina da gizakia eta benarriz arrunta.

barrutik kanpora

Esker mila

Bai esker mila. Azkeneko bi urte hauetan, SASOIAk ez ditu agertu Guaixen bere iritzi eta ekintzak. Aurten, astekari honetako arduradunak, berriz ere, parte hartzeko aukera eskaini digu eta, lehenik, gure esker ona agertu nahi diogu. Guri dagokigun egunean, hemen agertuko gara ba, berriz ere, gure lanak zuekin konpartitzeko asmoarekin.

Ez da gai faltarik izango. Zoritxarrez, baikor, harro eta itxaropentsu egoteko motiborik ez dago; adi eta kezkati egoteko bai. Jubilatu eta pentsionisten egoerak ez du egin hobera. Gero eta jubilatu gehiago dago pobreziaren muga azpitik. Hamar pentsionistetatik zazpik mila euro baino gutxiago irabazten dute eta hauetatik erdiak ez dira 600 eurotara iristen.

Isilik, ezjakinean, elkartu, gure arazoak konpartitu eta kalera atera gabe ez gaitezke gelditu. Zor zaizkigun eskubideak eta bizi oparo bat arriskuan dauzkagu. Murrizketaren politika azkar ari da bere helburua lortzen. Konbentziarazi nahi gaitu, gaurko egoera ekonomikoak ezin diotela erantzunik eman gure aldarrikapenei, irtenbide pribatuak aukeratu behar ditugula eta gu azpijokoan erortzen ari gara. Konformismoan erortzen ari gara.

Ez da hau SASOIAren irizpidea; gezurretan dabiltza. Pentsioen fondoak arriskuan badaude ez da sistema publikoa ezegokia delako, politika ekonomiko okerrak erabiltzen dituztelako baizik. Eta hau izango da gure egin beharra: lehenengo apurtu iruzurra eta gero elkartu, konpartitu, atera kalera, gizartea sentsibilizatu. Zurekin kontatu dezakegu?

Sasoia

hara zer dien

Belaunaldien arteko hartu-emanerako proiektua

Nagusienganako errespetuzko kultura berreskuratzen saiatzeko asmoz, Josefina Arregui Klinikatik haurrak eta nagusiak gerturatzea ahalbidetuko duen proiektu bat abiarazi nahi dugu, zeinak batzuen eta besteen esperientziaren eta ezagutzaren elkar trukea bultzatuko duen.

Belaunaldien arteko elkarbizitza eta komunikazioa indartu nahi dituzten jarduerak izango dira, elkar ulertzeko espazioak, kideen arteko urte diferentzia dena delakoa ere.

Proiektu hau zahartzaroaren gaineko ideia estereotipatu eta orokortuen kontra egiten saiatuko da; zahartzaroa pasibotasunarekin, hondatze fisikoarekin eta babesgabetasunarekin lotzen dituena. Belaunaldi gazteenek nagusienganako duten ikuskera hobetu nahi du, baita haurren enpatia garatu ere. Horrela, etorkizunean, zahartzaroaren esanahia eta gizarte osoak kolektibo honi eman behar dion laguntzaren eta babesaren beharra ulertuko dituzte.

Horrekin batera, Alzheimer gaixotasunaren oinarrizko ezaugarriak eta bizipenak ezagutarazten saiatuko gara. Hau guztia bi belaunaldien arteko komunikazioa hobetzeko helburuarekin.

Horretarako, Zelandi Eskola Publikokoarekin elkarlanean, 3 saio egingo dira Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleekin eta Josefina Arregui Klinikako Eguneko Zentroko gaixoekin. Bi saiotan Eguneko Zentroko zenbait erabiltzailek eta osasun-langilek eskola bisitatuko dute. Beste batean haurrak Klinikara gerturatuko dira erabiltzaileekin psikoestimulazio jarduerak egitera.

Josefina Arregui Klinika

gutunak

Adierazpen askatasuna dela eta- aldarrikapena

Gurutze Arregi Mujika, Altsasuko Mugimendu Feministaren izenean

Azken asteotan hainbat mezu aldarrikatzaile ezabatu dira gure kaleetako hormetatik. Hori dela eta, gure iritzia adierazi nahi dugu artikulu honen bidez.

Gizarte-taldeei legez dagokie beren erreibindikazioak kalean aldarrikatzea; izan ere, aldarrikapen horien atzetik guztiendako onuragarria izango den zerbait lortzeko ahalegina dago.

Ekintza horiek erabat lotuta daude gizartea hobetzeko gogoa eta kezka dituen herri baten fisionomiari, ardura horiek ezinbestekoak baitira guztion ongizatea lortzeko bidean aurrera egiteko.

Altsasuko Mugimendu Feministako taldekideak oso haserre gaude, hain zuen ere, "eraso sexistarik ez" mezua ezabatu dutelako; izan ere, gure ustez, oso modu egokian adierazi zen plazan, eta, horregatik, oso larria iruditzen zaigu ezabatu izana. Uste dugu udalak ezabatu duela mezua, herriko talde erreibindikatzaileen testigantzak herriko kaleetatik ezabatzen tematuta baitago.

Herria—hiriko altzariak—aseptikoa eta despolitizatua bada, zaila izango da bertan gizartearekiko kezka lantzea.

Mezu aldarrikatzaile horiek ezabatzea oso kaltegarria iruditzen zaigu, eta, horregatik, udalari eskatu nahi diogu jarrera horrekin bukatzeko, oso negatiboa baita herriaren bizitza sozialerako.

Euskal preso eta iheslariak etxera!

Ane Lizarraga (Ernai), Gaizka Uharte (LAB) eta Maitane Intxaurraga (Sortu)

Irailaren 25ean Espainiako Entzunegi Nazionala bilduko da euskal preso politikoek Euskal Herriratzeko egindako eskaera formalaren inguruan deliberatu eta ebazteko. Bere garaian "Instituciones Penitenciarias" delakoak ezezkoa eman zien eskaerei eta horren kontra sartutako helegitea da aztertuko dutena zehazki.

Giza eskubide eta beraien legea urratzen jarraituko duten edo ez erabakiko dute funtsean. Beraz, juridikoki planteatu ere ezinen litzakeen erro politikoa duen erabaki bat hartuko dute, eduki judizialez jantziko badute ere.

Beraiek bezain ondo dakigu preso politikoak Euskal Herriratu eta dispertsio politikarekin bukatzeak beraien etxeratzeko bidean urrats garrantzitsua dela. Ez dago arrazoi objektiborik dispertsioa mantentzeko, ez juridikoki, ez giza eskubideen planoan ez eta politikoan ere. Are gehiago, jakinda, euskal jendartearen gehiengoak eta nazio arteko estamentu ezberdinak dispertsioarekin bukatzearen alde egin dutela. Beraz, erabakiak motibazio politiko hutsa izanen du oinarrian; gatazkaren ondorioen atal hau blokeatuta mantentzea askapenerako prozesua inpass batean sartzeko asmoz.

Bezperan, irailaren 24an, arratsaldeko 19:30ean Etxarri Aranazko plazan biltzeko deialdia egin dugu, enkartelada ibiltari bat egiteko, argi eta ozen esanez EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK ETXEAN behar dutela egon eta ez dugula ahalegin horretan etsiko, kalean zein behar den eremuetan lanean eta indarrak biltzen jarraituz.

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitz Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Garazi Garzia Mauleon
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:
BAZKIDEAK
Mank sakana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saileburordetza

ETXARRIARRA ETB-KO SAIOAN: Euskal Herriko gazte jatorrenak eta koadrila jatorrena bilatzen dituen saioa da Gu ta Gutarrak. ETB 1en ematen dute, astelehenetik ostegunera, 21:00etan. Parte-hartzaileen artean Joannes Bengoetxea 20 urteko gazte etxarriarra dago.

sakanerria >>

SAKANA

Josefina Arregi klinikaren prestakuntza saioak asteartean hasiko dira

Klinika psikogeriatrikoko profesionalek euren jakintza sakandarrekin partekatuko dute 4 hitzaldi eta 3 tailerretan

Denepndentzia duten pertsonak nola mugitu azalduko dute asteartean Itziar Iturrioz erizainak eta Eneka Lizarraga erizaintzako-laguntzaileak. Josefina Arregiko klinikako bi langileek pertsona dependenteak altxatzeko, lekualdatzeko eta mugitzeko aholkuak emanen dituzte. Tailer horretan parte hartu nahi dutenak asteartean, 18:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean egon beharko dute.

Tailer horrekin hasiko da Josefina Arregi klinikak bere jakintza partekatzeko antolatu duen zikloa. Haren helburu nagusia da gaitzak kaltetutako pertsona eta haien familien bizi kalitatea hobetzea. Horregatik, zahartze osasuntsuan eta gaitz neurodegeneratiboen prebentzioan eta zaintzan interesa duten pertsonei zuzendutako saioak dira.

» **Altsasu**

Txakurren pozoitzeak

Lau hil egin dira eta beste hiru larri zauritu. Foruzaingoak bost salaketa jaso ditu

Altsasuko Otadiko Kristo Deuna eta San Joan ermiten inguruan, Idertzagain, Bakea, Nafarroa eta Altzania eta Amaia kaleen artean txakurrendako pozoia bota dutela gaztigatzen duten oharrak jarri zituen astelehenean Udaltzaingoak. Baratzetan bareak eta barraskiloak hiltzeko erabiltzen den pozoia haragi pilotetan agertu da han. Baita hauts modura edukiontzien inguruetan ere. Pozoiak duen koloreagatik da deigarria. Agertu den tokietako bitan haurrendako jolas parkeak daude eta haurrendako erakargarria izan zitekeen.

Larunbat goizean izan zen pozoia zuten haragi bolen berri. Txakur jabeek elkarri gaztigatu zioten. Horrek, ordea, ez zuen astelehena bitartean lau animalia hiltzea eragotzi. Halakoa jaten duen txakurra txistua botatzen eta botaka hasten da lehenik. Dardarka hasten da gero eta tenperatura igo egiten zaie. 24 ordutan biriken edo bihotzaren akats batengatik hiltzen dira. Gehiago irauten badute, gibelaren akatsagatik.

Udaltzainek Amandrea kale ondoan jarritako kartela.

Hildako txakurren kasuan heriotzak berehalakoak izan dira. Beraz, pentsatzekoa da pozoi dosi handiak jan zituztela. Halakoetan, txakurraren heriotza ziurra da. Dosia txikiagoa bada, jabeak animaliari lehenbailehen botaka egitea behartu behar du eta azkar batean albaitariarengana eraman.

Salaketa

Pozoitzeak salatzeko kontzentrazioa egin zuten txakurren hainbat jabek domeka arratsaldean. Jende talde ederra elkartu zen, haietako batzuk animaliekin. Eta taldea, manifestazio moduan, paseatzen udaletxeraino lehenik eta Foru plazara ondoren joan ziren. Festen ondoren mobilizazioekin segitzea ez dute baztertzen.

Foruzaingoak txakur jabeei tentuz ibiltzeko eskatu die. Foru poliziak ikertzen ari dira eta asteburuan ezohiko zerbait edo ikertutakoarekin erlazioa duen zerbait ikusi duenari 112 telefonora hots egin edo Altsasuko polizia etxetik pasatzeko eskatu du.

Txakurra, ez txerria

Pozoiak hil duen txakur jabeetako bat aurreko astean Altsasun barna kartelak jarri zituen. Haietan honako mezua irakur zitekeen: txakurra naiz, ez dut txerria izan nahi. Altsasu garbiago baten alde. Izan ere, txakurren egin eta jabeek jasotzen ez dituzten kaka ugariek altsasuarren kexu ugari sortzen dituzte. Horregatik, udan udaltzainak jabeak sentsibilizatzeko animaliak paseatzen dituzten inguruetan informatzen aritu ziren.

Udal araudiak arau hauste arintzat du txakurren kakak ez jasotzea. Horregatik, 60 eta 150 euro arteko isunak jarri daitezke. Jabearen jarrerak berean segitzen badu 150 eta 1.500 arteko isunak aurreikusten ditu.

Nonerabili

ETXARRI KOMERTZIALA
ETXARRI ARANATZ
% 10eko deskontua koltxoietan.

ARKANGOA TABERNA
ALTSASU
Postrea edo kopa doakoa.

GIXANE ESTETIZISTA
ALTSASU
%5eko deskontua zerbitzu guztietan.

PINPILINPAUSA
ALTSASU
50 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

TEXARTU
IRUÑEA
Eskaintza kanpainaren arabera.

CLINKER
OLAZTI
Menuarekin kafea eta kopa doan.

SORKUNDE HARATEGIA
ALTSASU
50 €ko erosketetan etxeko produktua doan.

BERRIA EGUNKARIA
Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

IKER KIROLAK
ALTSASU
50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA
ETXARRI ARANATZ
% 20ko deskontua kontsultan.

BASOMUTUR
ALTSASU
Menuan eta kartan %6ko deskontua.

www.guaixe.eus-en zerrenda osoa ikusgai

» Etxarri Aranatz

Urbasako saroiko gertakarien zuzeneko berri

Larunbatean, 11:30ean, Etxarri Aranazko kultur etxean

Aurten identifikatu dituzte Urbasako saroiko lezean zeuden hamar gorpuzkietatik bederatzi. Haietako bost 1936ko irailaren 6an hildako Clemente Araña, Paulo Garciandia, Andres Gonzalez, Antonio Maiza eta Narciso Artola etxarriarrak zirela ziurtatu zuten zientzialariek. Baina identifikazio horiek egin ahal izateko aurretik ikerketa lan handia egin zuen Balbino Garcia de Albizu ameskoarrak. Saroian hildako baten iloba da eta estatu kolpean Urbasa hilegi bihurtu zela adierazten duen liburua idazten ari da. Lan horretan Amaia Urkijo bi eraildakoren ilobak lagundu dio. Biek identifikazio prozesuaren azalpena eta ondorioak azalduko dituzte.

Hilaren 6an Urbasan omenaldi bikoitza egin zen. Lastailaren 31n, kontzertua.

Gonbita

Etxarri Aranatzen 1936an gertatutakoa eta historia oroimena landu, gertaerei buruzko hausnarketa zabalagoa egin eta lan ildo batzuk abiatzeko lantaldea sortu da. Momentuz zazpi bat herritarrek osatzen dute taldea baina gaian interesa duen guztiak bihar izena emateko aukera izanen du. Oraindik taldearen helburuak, asmoak eta planak zehazte garaian daude.

» Arakil

Ikastaro eta tailer eskaintza prest

Arakilgo Udalak ikasturte berriako ikastaroen eskaintza jakinarazi du. Arakildarrek zunban, entrenamendu funtzionalean, latindar dantzetan, batukada tailerrean, zeramika ikastaroan, antzerki tailerrean eta gimnasian aritzeko aukera izanen dute. Haietan izena eman nahi dutenek hilaren 30era arteko epea dute. Udaletxetik pasa edo 948 500 101 telefonora hots egin behar da. Informazioa nahi duenak 634584226 telefonora hots egin dezake.

Udal eskaintzaren osagarria da Xaniturri emakumeen elkarteak antolatutakoa. Pilates, yoga eta eskulanak dira haien eskaintza. Hilaren 28ra arte eman daiteke izena, 646 605 732 telefonoan (Nieves). Arakilen, gainera, beste eragileen eskaintza ere bada: homeopatia, ingelesa, mikologia, euskal dantzak, euskara, harri-jasotzea eta Mank-en kirol jarduerak.

» Irurtzun

10 jarduerako eskaintza egin du udalak

Hurrengo ikasturterako helduendako kirol eta kultura jardueren eskaintza egin du Irurtzungo Udalak. Kirol arloan mantentze gimnasia, gorputz jarrera, pilatesa, bizkortzea, zunba eta kirol entrenamendua dute aukeran irurtzundarrek. Jarduera horietako batzuetarako hainbat ordutegiko eskaintza dago. Bestalde, udalaren kultur eskaintzan daude antzerki tailerra, irakurketa taldea eta marrazketa eta pintura.

Irurtzunen beste eragileek antolatutako ikastaroak ere egin daitezke: euskara, dantza, atzerritarrendako gaztelania, ingelesa, yoga integrala, bach loreak, jantzigintza eta arropen birziklapena, dantza latindarrak eta aretodantzak, mikologia, fibromialgia eta neke kronikoa sindromea dutenendako saioak, zeramika eta eskultura, mugimendua, adierazpena eta sormen artistikoa, harri-jasotzea eta kick boxing.

» Arakil / Irurtzun

Bertako ganaduaren erakarpena

Igandean ospatu zen Arakil eta Irurtzungo III. Bertako Ganadu Azoka. Irurtzungo plazako frontoian jarritako bertako arrazen azienda erakusketak etengabeko jendearen joan etorria izan zuen. Artisauen eta ekoizleen postuetara jendeari gehiago kostatu zitzaion hurbiltzea. Baina eguerditik aurrera jendea ederki bildu zen plazan eta Lizarra kalean. Batzuk eta besteak pozik bukatu zuten azoka bukaeran, nahiz eta ordubata aldera euri pixka bat egin. Pertsonaia mitologikoak haur eta helduen gozagarri izan ziren.

Animalien erakusketak jende ugari erakarri zuen.

SAKANA



Aralarko aingeru ibiltariaren bisita.

Aralarko aingerua, hamargarrenez, Orreagara

Larunbatean eramanen du Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak. Zubirin, Orreagan, Luzaiden eta Garazin emanen dute eguna

Kofradiak sustatuta Aralarko aingeruaren irudiak Nafarroako beste santutegiak bisitatzen hasi zen. Aurten, hamargarren aldiz, Orreaga bisitatuko du aingeruak, baita Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiako kideak ere. Larunbatean kofradeak eramanen dituen autobusa beteta dago.

Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak prestatutako egitaraua dela eta kofradiako buru Joxe Mari Ustarrozek gonbita luzatu du: "Nafarroako, Iparraldeko eta Euskal Herriko jendeak toki berezi honetan elkartzeko aitzakia ona da, horregatik bi kofradiek ospakizun honetan parte hartzera gonbidatzen dugu".

Egitaraua

8:00etan Autobus irteera Uharte Arakildik.
8:30ean Autobusaren geldialdia Iruñeko autobus geltokian. Geldialdia Zubirin.
10:45ean Orreagako bideko gurutzetik kolegiatara ibilaldia, txistulariak lagun. Kabildoaren eta haren gurutzearen harrera.
11:00etan Meza abestua. Aingeruaren gurtzea. Ondoren, kalean, aingeruak landen bedeinkapena eginen du. Kolegiatara bisita gidatua, bukaeran La Sabina jatetxean senidetze hamabietakoa Orreagako kofradiaren eskutik. Luzaideko Xabi bentan bazkaria. Arratsaldean, Donibane Garazira bisita.

» Lakuntza/ Sakana

Militarrak Aralarren

Astearte an soldaduak ekarri zituen autobusa eta harekin bi ibilgailu militar txiki, 8:30ak baino lehen iritsi zen Lakuntzara. Dantzalekua zegoen zelaian aparkatu eta han jaitsi ziren soldaduak. Handik Lakuntzako basora jo zuten, Aralarrerantz.

» Olatzagutia

Hondakinak erretzeko Porlandegiaren baimena, baliogabetuta

Ingurumen baimen integratua jaso eta bi urte pasa ondoren erregai alternatiboak balorizatzeko proiektua martxan jarri ez duenez, Nafarroako Gobernuak baimena iraungitzat eta inongo eraginik gabekotzat jo du

Cementos Portland Valderrivasek (CPV) ingurumen baimen integratu berria eskuratu zuen 2013ko ilbeltzaren 16an. Horrela, Olatzagutiko porlandegian erregai alternatiboak balorizatzeko baimena jaso zuen. CPV-k baimena jaso eta bi urteetan proiektua gauzatu ez duenez, Nafarroako Gobernuak hura iraungitzat eta inongo eraginik gabekotzat jo du. Ebazpenaren tramitazioan CPV-k hamar egun izan zituen kontrako alegazioak aurkezteko baina ez zuen halakorik egin. Gobernuaren erabakiari, hala ere, helegitea aurkeztu dakioke.

CPVtik jakinarazi dutenez, ez dute dirurik izan proiektuak aurreikusitako lanak egiteko, besteak beste: hondakinendako biltegia, 7. eta 8. labeetarako garraio zintak. Enpresatik gogorarazi dutenez, azken urteetan salmenta jaitsiera handia izan dute. Aurten, labe bakarrarekin, 325.000 tona porlan ekoiztea aurreikusten dute. Aurreko urtearekin alderatuta fakturazioa %10-15 arteko jaitsiera da hori. Horregatik guztiagatik enpresak ez zuen proiektua gauzatu eta aurreratu duenez, ez du helegiterik aurkeztuko. CPVk baimen berria eskatu dezake eta Nafarroako Gobernu berriaren eskumena da hura onartzea edo ez.

Bestalde, Sustrai Erakuntza fundazioak baimena iraungitzat jotzeko eskaera onartzeagatik Nafarroako Gobernua zoriondu du. Fundazioko kideen iritziz gobernuak ez luke baimendu beharko Olatzagutiko porlandegian hondakinak erraustea. "Are gutxiago Nafarroako Hiri Hondakin Plan Integratua eztabaidatzen ari den bitartean". Aldi berean, gogorarazi du "herritarrak hondakindegirik eta errausketarik gabeko hondakinen kudeaketa moderno baten alde" dagoela gaztigatu du.

Baliorik gabe gelditu da CPVk Olatzagutiko porlandegirako eskatutako balioztatze baimena.

Kronologia laburra

1998 Olatzagutiko Udalak errausketak debekatzen zuen araudia onartu zuen.
2012-06-13 Gobernuak eta Portlanden arteko hitzarmena, zabortegira doazen eta birziklatzeko ez diren hondakinen zati bat erregai moduan erabil zitezen Olatzagutiko fabrikan.
2012-07-04 Gobernuak proiektua aurrera eramateko UGPS izendatzea erabaki zuen.
2012-12-19 Portlandek behar zuen integratutako ingurumeneko baimen berria UGPSren barnean sartzeko izapideei ekin zien Gobernuak.
2013-01-16 Nafarroako Gobernuak 36 alegazio atzera bota eta, Udalez Gaindiko Proiektu Sektorial baten bidez, CPVri Olatzagutian 55.000 tona hondakin erretzeko baimena eman zion.
2013-01-17 3 Mugak Batera plataformak gobernuaren inposizioa eta zentzugabekeria salatu zituen.
2013-03-16 Altsasun milaka pertsona erraustegiaren aurkako manifestazioan.
2013-03-19 Mank-ek gobernuaren erabakiari helegitea aurkeztea erabaki zuen.
2013-05-23 Nafarroako Gobernuak Porlandegiak balioztatzeko egin beharreko lanak, interes orokorrekoak
2013-06-01 Errausketak sor ditzakeen gaitz bakoitzeko ohe bana jarri zuen 3MBk Nafarroako Parlamentu aurrean, 100 guztira.
2013-06-12 Egitasmoak eragindako eskualdeetako guraso talde batek Nafarroako Gobernua Estatuko Fiskal Nagusiaren aurrean salatu zuen eta sinadura bilketari ekin zion.
2013-06-25 Errausketa proiektuaren lanen interes orokorreko izendapenari helegitea aurkeztu zion 3MBk.
2013-08-22 CPVk ingurumen baimen integratu berria jaso zuen, 2017ko martxoaren 26ra arte zementua fabrikatzeko eta magnesio-oxidoa eta dolomia sinterizatua produzitzeko.
2015-06-24 Sustrai Erakuntza fundazioak baimena baliogabetzea eskatu zion Nafarroako Gobernuari.
2015-07-02 Nafarroako Gobernu berriaren programako neurriak onartuak. Olatzagutiko porlandegiak hondakinak errausteko duen baimenaren egoera juridikoa aztertuko zela adostu zuten lau alderdiek.
2015-09-16 Nafarroako Gobernuak CPVri emandako baimena iraungitzat jo zuen.

» Uharte Arakil

Plazako estalpea haizeak hautsita

Udalak ez du konpontzea aurreikusten

Asteartetik asteazkenerako gauean jo zuen haize indartsuak Uharte Arakilgo plazan estalpe gisa jarritako toldoa hautsi zuen. Mendikoa kalea aldean dagoen toldoaren zati handi bat zartatu zuen haizeteak. Artzain Egunerako jarri zuen udalak estalpea eta igandean ospatuko den km Bertikala kirol proba eta San Migel festak pasa arte jarrita utzi zuten (Sanjuanetan ere erabiltzen da).

Ainara Aiestaran alkateak esan digunez, "ez dugu konpontzea aurreikusten. Aurretik ere partxe ugari ditu. Beste bat erosten badugu bestelako planteamendu batekin izanen litzateke". Toldoak 21 urte inguru ditu eta azkenekoz duela bi urte hautsi zen. Alkateak jakinarazi duenez, toldoa kendu eginen dute. "Iganderako eguraldi aurreikuspenak onak dira. Festetako bazkariak, eguraldiak laguntzen ez badu, frontoian izanen dira".

» Altsasu

Pozik hezkuntza kontseilariarekin izandako bilerarekin

Altsasuko alkate Javier Ollo Martinez eta hezkuntza kontseilari Jose Luis Mendoza aurreko ostegun eguerdian elkartu ziren. Hilaren 3an sute batek Txirinbulo udal haur eskola txikitu ondoren gaia aztertzeko elkartu ziren bi administrazioak. Ollo pozik atera zen bilkuratik. Udalaren asmoa da Navarro Villoslada eraikina zeneko egokitzapen lanei berriro heltzea. Horretarako Nafarroako Gobernuaren finantzaketa ezinbestekoa da. Mendozak Ollori eskola proiektua aurkezteko eskatu zion, aukera balego heldu den urteko Nafarroako Gobernuko aurrekontuetan sartzeko.

PPSOE,
Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

LARRAZA ARDOAK
Tel.: 948 460 014
Zugarreta 2
Etxarri-Aranatz

Ana Santano
Bularra ez da soilik elikadura
Edoskitzean arazoak?
Laguntzarekin gainditukо duzu
635 811 106
Gartzia Ximenez 16 · Altsasu

SAKANA

Agorrilean eten zen langabeziaren beherako joera

Zazpi hilabetez jaisten egon ondoren, pasa den hilean 1.278 sakandar zeuden lan bila, urte hasieran baino 332 gutxiago

Garila bitartean langabeziak behera egin du Sakanan, baina agorrilean joera moztu zen. Aurreko hilabetean baino 9 pertsona gehiago zeuden Nafarroako Enplegu Zerbitzuan (NEZ) izena emanda: 1.278. Joan den urteko agorrila akaberan 314 sakandar gehiago ziren lan bila zeudenak. Sakandarrak Nafarroako populazioaren %3,19 izanik ibarreko langabeak %3,06 dira.

Emakumeak dira lan bila ari diren gehienak: 731 (%57,2 eta aurreko hilean baino 8 gutxiago). Gizonezko langabetuak, berriz, 547 ziren (%42,8 eta 17 gehiago). Langabe gehienek 45 urte edo gehiago dituzte: 630 (%49,3 eta 11 gehiago). 25 eta 44 urte bitarteko langabeak dira bigarren adin multzoa: 544 (%42,57 eta 5 gutxiago). 25 urte baino gazteagoak eta lan bila dabiltzanak 104 ziren (%8,14 eta 3 gehiago).

Margolariak etxea txukuntzen.

Langabezia herrika

Herria	Langabetuak	Aldea
Arakil	33	-1
Irurtzun	133	-2
Irañeta	6	-1
Uharte Arakil	40	0
Arruazu	6	1
Lakuntza	49	-8
Arbizu	61	-1
Ergoiena	8	0
Etxarri Aranatz	138	8
Bakaiku	13	1
Iturmendi	22	0
Urdiain	25	1
Altsasu	636	12
Olatzagutia	91	-2
Ziordia	17	1
Sakana	**1.278**	**9**

Sektoreak

Zerbitzuetan lan eginen lukete langabe sakandarren %60,33k (771 pertsona eta aurreko hilean baino 4 gehiago). Industriarako lan eskatzaileak %25,12 ziren (321 eta 11 gehiago). Eraikuntzan lan egiteko prest zeuden %6,73 (86 sakandar eta 7 gehiago). Lehen sektorean aritzeko prest %1,8 zegoen (23 pertsona eta 7 gutxiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez dutenen kopurua %6,03koa zen (77 eta 6 gutxiago).

Kontratuak

Oporrak kontratazio kopuruan nabaritu zien. Agorrilean garilean baino 100 kontratu gutxiago sinatu zituzten sakandarrek, 581 guztira (2014ko agorrilean baino 46 gehiago). Haietatik %57,31 gizonezkoen sinadura dute (333 eta garilean baino 29 gutxiago) eta %42,69k emakumezkoenak (248 eta 71 gutxiago). Sinatutako 10 kontratuetatik bederatzi (%93,8) aldi baterakoak ziren (545 eta aurreko hilean baino 111 gutxiago). Agorrilean mugagabe bihurtu ziren kontratuak 24 izan ziren (%4,13 eta 11 gehiago). Hasieratik mugagabeko kontratuarekin hasi ziren dozena bat sakandar (%2,07 eta berdin).

Industriak egin zituen kontratazio gehienak agorrilean: 279 (%48,02 eta garilean baino 13 gehiago). Zerbitzuen sektorean ere kontratu asko sinatu ziren: 275 (%47,33 eta 107 gutxiago). Eraikuntza sektorean 23 kontratu sinatu ziren (%3,96 eta 4 gutxiago). Azkenik, lehen sektorean 4 kontratu sortu ziren (%0,69 eta 2 gutxiago). Nafarroan agorrilean sinatu ziren 26.182 kontratuetatik %2,22 sakandarrenak ziren.

Dozena bat gazte euskararen inguruan hausnartzen

Hiru larunbatez, Etxarriko gaztetxean, euskararen inguruan hausnartzera elkartuko dira 10 gazte etxarriar eta 2 iturmendiar. Hiru saioko tailerraren helburua da gazteek euskaraz egiteko oztopo, korapilo edo beldurrak uxatzea eta, aldi berean, aurreiritziak apurtzea eta argudio berriak barneratzea. Horren bidez, gazteek norberaren portaera ulertu, euskaraz egiteko argudio gehiago barneratu eta norberaren portaeraren ondorioak ezagutzeko aukera izanen dute.

Beraz, irailaren 19an, 26an eta lastailaren 10ean, 10:00etatik 13:00etara, ariko dira. Emun-go kideek gidatutako saio dinamikoak izanen dira. Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuarekin batera

Arakil

Plazaola Turismo Partzuergoko kudeatzaile izateko deialdia

Arakilgo Udala kide duen Plazaola Turismo Partzuergoak orain gutxira arte Maitena Ezkutari Artiedaren kudeatzailearen lekua betetzeko deialdia egin du. Orain arteko kudeatzaileak Nafarroako Gobernuan ardurak hartu ditu eta partzuergoak bere hutsunea ordezkapen batekin bete nahi du. Horretarako, oposizio-lehiaketa deitu du. Lanpostuan interesa dutenek unibertsitate titulua, ofimatika, informatika eta IKT ezagutzak izan behar ditu, gida baimena eta autoarekin batera. Turismo arloko eskarmentua eta prestakuntza baloratuko dituzte. Irailaren 25eko 13:00ak arte aurkeztu daiteke dokumentazioa Lekunberriko turismo bulegoan.

Zer marka nahi duzu .EUS izatea?

Euskal komunitate linguistikoa interneten ordezkatzen duen .EUS domeinua indartzeko #markatupuntueus kanpaina martxan da. Parte-hartzaileek asteroko sarien zozketan sartuko dira, lastailaren 15era arte

PuntuEUS fundazioak titularreko galdera erantzutera animatu gaitu #markatupuntueus kanpainaren bidez. .EUS domeinua izatea nahi dugun inguruko enpresa, denda, erakunde, elkarte, musika edo kirol talde edo bestelakoren bat aukeratu eta haren izena edo marka azaltzen den edozein euskarriri argazkia egin (errotulua, txartela, ibilgailua, poltsa, iragarkia, kartela, arropa…).

Argazkia #markatupuntueus etiketarekin etiketatu eta Facebook/MarkatuPuntuEus, Twitter edo Instagram bidez argazkia sareratzea proposatzen du kanpainak. www.markatu.eus web orrian argitaratuko dira kanpainan parte hartzen duten argazki guztiak eta bozkatzeko aukera izango dute erabiltzaileek. Bozkatuenei astero Samsung Galaxy tableta bat oparituko zaie. Horretaz gain, amaieran PuntuEUS Fundazioak bi lagunentzat nekazal-etxe batean asteburuko egonaldia zozketatuko du kanpainan parte hartu duten guztien artean.

+www.guaixe.eus

Etxarri Aranatz

Dispertsioaren kontrako jarrera azalarazteko kanpaina

70.176

Urtero Etxarriko preso baten familiak bataz beste egiten dituen km-ak. Desplazamendu horien kostua 19.653 eurokoa da. Hilero 5.848 km (1.637,75 euro) eta astero 1.360 km (377,94 euro).

Sare dinamika herritarrak Etxarri Aranazko taberna, denda eta elkarteei zuzendu zaie. *Hemen dispertsioaren aurka gaude* leloa duen karteltxoa euren establezimenduko toki esanguratsu batean jartzeko eskaera egin die. Karteltxo horren bidez gogorarazi nahi dute Etxarriko presoen senide eta lagunek astebururo 9.000 km egin behar dituztela haiek bisitatzeko. Bisita horietan auto istripua izateko arriskua dagoela nabarmendu dute: "dispertsioak 25 egunetik behin istripu bat eragin du. Dagoeneko 16 hildako eragin ditu". Saretik jakinarazi dutenez, dispertsioa eskubide urraketa da eta horrekin bukatzeko guztion konpromisoa beharrezkoa dela adierazi du.

SAKANA

EH Bildu abenduko hauteskundeei begira

Heldu den asteartean, 19:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxeak koalizioaren batzar irekia hartuko du

EH Bilduk sakandarrak batzar ireki batera gonbidatu ditu. Abenduan egitekoak diren hauteskunde orokorrak prestatzeko saioa izanen da eta hiru gai aztertuko dituzte koalizioko kideek eta zaleek. Lehenik, Amaiur koalizioaren balantzea aurkeztuko da, sakandarren ekarpenak jaso eta denen artean balantzea osatzeko.

Bestetik, Nafarroan aldaketaren alde egin duten alderdiei elkarrekin aurkeztu eta aldaketa Nafarroatik Espainiara eramateko proposamena egin zaie. Alderdiek oinarrizko testu bat jaso dute eta EH Bilduk erabaki du herri eta eskualde batzarretan erabakitzea zein den eman beharreko erantzuna. Beraz, astearten sakandarren erantzuna ezagutuko da.

Azkenik, koalizioak astearteko hitzordua zerrenda osatzeko eta zerrenda bururako proposamenak jasotzeko erabiliko du. Horren inguruko azken erabakia koalizioak lastailean eginen diren herri edo eskualde batzarretan hartuko du.

SAKANA

Aitor Karasatorrek Mank-eko buru izaten segituko du

Erakundearen zortzigarren legegintzaldiko presidentea da etxarriarra

Aitor Karasatorre Mugurutzak programa ordezkatuak dauden alderdien ekarpenekin osatu nahi du. Horretarako bilera erronda hasiko du.

Ostegunean eratu zen Sakanako Mankomunitateko batzarra. Eta horrekin batera 29 batzarkideen artean lehendakaria aukeratu zen. Aurreko legegintzaldian erakundea zuzendu duen Aitor Karasatorre Mugurutza izan zen hautagai bakarra. Batzarrean izan ziren 24 kideetatik 17k Karasatorreren alde egin zuten, bostek txuri bozkatu zuten eta bik kontra.

Kargua hartu berritan Karasatorrek gogora ekarri zuen herriez aparte Sakanarako programa aurkeztu zutela udal hauteskundeetan. Mankomunitatean koalizioak garatu nahi dituen lan ildoak han jasoak daudela azaldu zuen. Eta batzarrean jakinarazi zien: "ekarpenak jasotzeko hurrengo asteetan hemen ordezkatuak zaudeten talde politiko ezberdinen ordezkariekin bildu nahiko genuke". Ekarpen horiekin legegintzaldirako programa osatu eta Mank-eko batzarrari aurkeztu nahi diote. Karasatorrek "guztion artean Sakana berria egiten jarrai dezagun" dei egin zuen.

Mank-eko buruak, bestalde, ohartarazi zuen "gure lehentasunezko lan eremua instituzioak badira ere, herritarrak eta herritarrak antolatzen dituzten herri eragile sozial, sindikal, kultural eta abarrekin elkar lana bulkatzea da EH Bilduren izaeraren oinarria". Herritarrak modu batera edo bestera antolatuak egotearen garrantzia nabarmendu zuen. Haiendako ateak zabalik dituztela eta partekatzen hasteko gonbita egin zien. Azkenik, ardura eman ziotenei eta EH Bildu babestu duten sakandarrei eskerrak eman zizkien.

Bitxikeriak

Bi pertsonek errepikatu dute Mank-eko presidente karguan: Karasatorrek eta Migel Angel Zubiria Galartzak. Etxarriarra jarraian egon da karguan; urdiaindarra, berriz, bi alditan.

Aurreko legegintzalditik errepikatzen duten batzarkideak lau dira: Karasatorre etxarriarra, Galartza bakaikuarra, Gabirondo iturmendiarra eta Rodriguez olaztiarra. Bestalde, zenbait legegintzaldiren ondoren, IU-EB-k ez du Mank-en ordezkaritzarik. Azkenik, ibarreko erakundeko batzarkide dira Sakanako 15 alkateetatik 11. Ez dira Arakil, Irañeta, Etxarri Aranatz eta Ziordikoak.

29 batzarkideak

Udala	Batzarkidea	Alderdia
Arakil	Ruben Goñi Urroz	Independentea
Irurtzun	Aitor Larraza Carrera	EH Bildu
	Eduardo Murugarren Frances	EH Bildu
	Arantxa Berasategi Zabalo	Independentea
Irañeta	Jose Manuel Lizarraga Mendinueta	Independentea
Uharte Arakil	Ainara Aiestaran Ijurko	EH Bildu
Arruazu	Peio Betelu Ganboa	Independentea
Lakuntza	Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza	EH Bildu
	Josu Imaz Prim	EH Bildu
Arbizu	Karmele Marañon Chasco	EH Bildu
	Migel Angel Urkia Arretxe	EH Bildu
Ergoiena	Xabier Senar Veiga	Independentea
Etxarri Aranatz	Aitor Karasatorre Muguruza	EH Bildu
	Begoña Goikoetxea Zabaleta	EH Bildu
	Maria Saez de Albeniz Bregaña	EH Bildu
Bakaiku	Aner Galartza Barandiaran	EH Bildu
Iturmendi	Vitoriano Gabirondo Lanz	EH Bildu
Urdiain	David Oroz Alonso	EH Bildu
Altsasu	Javier Ollo Martinez	Geroa Bai
	Pedro Jimenez Elvira	Geroa Bai
	Manuel Bergera Ijurko	Geroa Bai
	Arantza Bengoetxea Intxausti	EH Bildu
	Javier Paz Miño	EH Bildu
	Juan Migel Perez Hurtado	PSN
	Virginia Alonso Aparicio	Goazen Altsasu
	Javier Lopez Patus	UPN
Olatzagutia	Gurutze Rodriguez Armendariz	EH Bildu
	Ibai Barandiaran Albiztur	EH Bildu
Ziordia	Olatz Irizar Martinez	EH Bildu

Batzarkideen generoa

29 batzarkideetatik 9 emakumezko dira eta 20 gizonezko. Aurreko legegintzaldian 7 eta 22 ziren.

Mankomunitatearen osaketa

Sakanako Mankomunitatean ibarreko herri guztiak daude ordezkatuta. Ordezkaritza herriaren populazioaren arabera aldatzen da. Legegintzaldi honetan aurreko legegintzaldiko 29 ordezkariak mantentzen dira.

Biztanle kopurua	Ordezkariak
>1000	1
1.000-2.000	2
2.000-3.000	3
7.000-8.000	8

Indarren ordezkaritza

EH Bildu 18
Independenteak 5
Geroa Bai 3
PSN 1
Goazen Altsasu 1
UPN 1

Orain arteko lehendakariak

1987-1991
Jose Manuel Etxeberria Solis.
1991-1995
Manuel Ijurra Etxarri.
1995-1999
Migel Angel Zubiria Galartza.
1999-2003
Jose Manuel Leitza Razkin.
2003-2007
Gorka Ovejero Ganboa.
2007-2011
Migel Angel Zubiria Galartza.
2011-2015
Aitor Karasatorre Mugurutza.
2015-2019
Aitor Karasatorre Mugurutza.

GRUPO TANATORIO IRACHE
TANATORIO TALDEA
948 197 070
Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza
www.tanatoriosirache.com

Juan Mari Celaya Izaguirre

Ez, adiorik, Juan Mari.
Gurekin gelditzen zara.
Agur Nanari.

Zure arrebak eta koinatuak Luisa eta Fernando eta Isabel eta Josetxo eta zure ilobak Fernando eta Miriam, Asier, Jorge eta Lorena, Maite, Bea eta Ibai, Iraia eta Ane

Balbino San Roman Satrustegi

Hogeita bost urte ondoan egon ondoren
zu gabe sekula ez da ezer berdina izango.

Eskerrik asko, Balbino.

Patxi eta Larrezabalgo lagunak

Oroigarriak

Guaixe KOMUNIKAZIOA
948 564 275

GRUPO Funeraria VASCONGADA Ehorzketak TALDEA
Olaberrian bertan BEILATOKIA eta ERRAUSTOKIA
www.funerariavascongada.com
24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).
Argazki bakoitzeko 3€.
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan.**
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Lana/ Negozioak

LAN ESKAINTZA

Bakaikuko Bakarreko-Etxea Elkartean garbitzeko pertsona bat behar da. Sartu elkarteko postontzira izena eta telefono zenbakia irailaren 25eko 21:00ak baino lehenago. Kontaktua: bakarrekoetxea@gmail.com.

LAN ESKARIA

Lan egin nahi dut: animaliekin (ez harategian, ez hiltegian), naturarekin zerikusirik duen lanen batean, banatzaile eta postari lanetan. Ez: fabrikan eta tabernan. Tel: 610 99 86 37 Ibon.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Txantrean pisua salgai. Ezkaba plazan. 3 logela, berritua, igogailua, balkoi itxia, leiho abatibleak, berogailu zentrala etab. Ezkaba mendira eta Munduaren parkera bista ederrak. 120.000 € negoziagarriak. Tel: 625 05 90 89.

Lehiaketa

Argazki lehiaketa. Nafarroako Landa Turismoko Federazioak Igo Argazki Lehiaketa antolatzen du Nafarroa bisitatzen dutenei zuzenduta. Argazkiak e-mail bidez bidali daitezke info@turismoruralnavarra.com helbidera edo zuzenean www.turismoruralnavarra.com web orrialdera igo. Azken horretan dago lehiaketari buruzko informazio guztia.

Oharrak

Odol-emaileak. Irailaren 16an eta 23an, Etxarri Aranatzen, arratsaldez; 24an Olaztin eta Ziordin arratsaldez eta 25ean Olaztin, goizez.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10 , sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioa, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalei, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoan.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen astearteetan, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen Ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduan egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleen garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juridikoa. Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufritzen ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izatezko bikotearen eta ezkontzearen aldeak... Emakumearen Bilgunera jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

JAIOTZAK

- **Desiré Fernandez Fernandes,** irailaren 2an Altsasun.
- **Hodei Mena Davila,** irailaren 4an Iturmendin.
- **Lur Azpiroz Andueza,** irailaren 9an Lakuntzan.
- **Aner Lopez de Goikoetxea Morcillo,** irailaren 9an Olaztin.
- **Ainhoa Goikoetxea Otamendi,** irailaren 11n Etxarri Aranatzen.
- **Estitxu Gomez Osinaga,** irailaren 12an Irurtzunen.

EZKONTZAK

- **Oscar Lizarraga Burgaleta eta Goizargi Navarro Osinaga,** irailaren 12an Irurtzunen.
- **Jose Antonio Blanco Sanchez eta Miriam Ongay Garcia,** irailaren 14an Irurtzunen.

HERIOTZAK

- **Juan Maria Zelaia Izagirre,** irailaren 11n Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

TRIATLOIA

SAKANA TRIATLOI TALDEKOAK BIKAIN LIZARRAN: Igandean I. Lizarrako Triatloia jokatu zen. Aurre benjamin mailan Alain Razkin izan zen garailea, Ekain Imazen aurretik. Eta benjaminetan Egoi Lakuntza bigarrena sailkatu zen.

kirola >>

Atletismoa

Aurreko urtean Lizarragak hartu zuen Ergoienako Bira. Bihar, Unanuk.

Ergoienako Bira Unanun

Bihar, larunbatean, 17:00etatik aurrera, Ergoienako Bira hartuko du Unanuk

Udako oporren ondoren Ergoienako Birak irekitzen du Sakanako atletismo proben egutegia. Aurten 11. edizioa beteko du Ergoienako Birak eta bihar, larunbatean, hilak 19 jokatuko da Unanutik hasita, 17:00etatik aurrera.

8,5 km gorabeheratsu

Ergoienako Udalak hainbat babesle eta laguntzailerekin antolatutako probak bailarako hiru herriak batzen ditu, 8,5 kilometroko ibilbide gorabeheratsuan. Aurten Unanun hasi eta bukatuko da. Unanutik Dorraora joango dira, atzera ere Unanutik pasako dira, Lizarragaraino heltzeko, eta Dorraotik barna Unanuko helmugara iritsiko dira korrikalariak, paisaia bikainetatik barna ibili eta gero. Proba Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sarirako puntuagarria da.

Unanuko helmugatik pasatzen diren lehendabiziko hiru korrikalariek, gizonezkoek eta emakumezkoek, trofeoa jasoko dute. Korrikalari guztiendako eta proba jarraitzera bertaratzen diren guztiendako auzatea prestatuko du Unanuko Kontzejuak.

Aurretik txikiak

Proba nagusia baino lehen kategoria txikietako lasterketak jokatuko dira, 17:00etan hasita. Benjaminak, kimuak, haurrak eta kadete eta jubenilak lehiatuko dira. Irabazleek domina jasoko dute.

Izena ematea zabalik

Lasterketa egunean bertan, proba baino ordu bat lehenago.

Mendi lasterketak

Uharte-Beriain, bertikala

204 korrikalari ariko dira, igandean, Uharte Arakil-Beriain VII. Km Bertikalean

Aralar Mendi elkarteko mendi klubak hainbat babeslerekin batera antolatuta, igandean, irailaren 20an, Uharte Arakil-Beriain VII. Km Bertikala jokatuko da. Goizeko 10:00etan abiatuko da proba Uharte Arakilgo frontoitik. Dortsalen banaketa eta helmugara igotzeko arroparen bilketa, berriz, herriko plazan egingo da, goizeko 8:00etatik 9:30era. Uharte Arakilgo proba Nafarroako Mendi Lasterketen Koparako eta Euskal Herriko Bertikalen Koparako puntuagarria da.

Proban 204 korrikalari daude izena emanda. Parte-hartzaileak banaka-banaka aterako dira, proba kronometratua izango baita. Uharte Arakildik (471 m) aterata Beriaingo San Donato ermita izango dute helburu parte hartzaileek (1494 m). Proba motza da, baina intentsitate handikoa: 5 km-ko lasterketa, baina 1.023 metroko desnibelarekin eta sekulako etapa eta maldekin.

Gainontzeko korrikalarien denboraren erreferentziarik ez dutenez, lasterkariek erlojuaren kontra eta euren buruaren kontra egin behar izaten dute lana. Joan den urtean, 199 korrikalari aritu ziren, tartean 38 sakandar. Sekulako maila egon zen. Proban lehenengo aldiz estreinatu zen Aitor Osak 2013an Ionut Zincak ezarritako errekorra (42:42) bi minutu pasa hobetu zuen, erlojua 40:21ean geratuz. Harrigarria. Emakumezkoetan Uztarrotzeko Laura Sola izan zen azkarrena (51:17). Sakandarren artean Aritz Munarriz izan zen azkarrena, helmugan bosgarrena sailkatu eta gero (46:00).

Jose Javier Beregaña uhartearra, 2014ko edizioan Beriain puntara iristen.

Ikusle asko

Edozein toki da aproposa proba jarraitzeko, baina azken zatia da gogorrena eta ikusgarriena. Urtero geroz eta ikusle gehiago biltzen dira Beriainen proba jarraitzera eta primerako giroa izaten da.

Errekorra: Aitor Osa (40:21) eta Leire Agirrezabala (49:47)

Emakumeendako eta gizonezkoendako sariei dagokienez, txapeldunek garaikurrak, txapela eta 300 euro jasoko dituzte, bigarrenek garaikurra eta 150 euro eta hirugarrenek garaikurra eta 100 euro. Beteranoendako eta 21 urtez azpikoendako txapeldunendako garaikurra izanen da.

Bestalde, errekorra apurtuz gero, 300 euroko saria dago jokoan. Errekorra aurreko urtean apurtu zuen Aitor Osak (40:21). Aldiz, emakumezkoen errekorra 2013an ezarri zuen Leire Agirrezabalak (49:47).

www.uhartearakil-beriain.com

Probako informazio guztia, ibilbideen track-a eta beste.

Pilota

Sakandarrak txapelik gabe

Ansak eta Ongayk ezin izan zuten Altsasun irabazi

Sari ematean Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko zuzendari Ruben Goñi etxeberriarra, Altsasuko alkate Javier Ollo, Nafarroako Pilota Federazioko ordezkari Pablo Lopez de Goikoetxea eta Jesus Mari Porron eta Sociedad Deportiva Alsasuako presidente Luis Migel Santano izan ziren.

Sociedad Deportiva Alsasua elkarteak antolatutako 46. Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren aurreko ostiralean. Arbizu klubeko gazte mailako bi pilotarik eskainitako lagun arteko partidarekin abiatu zen jaialdia. Goikoetxea 18 eta 8 gailendu zen Olaetxearen aurrean.

Segidan 22 urtez azpiko finalaren txanda izan zen. Ansa altsasuarrak Otaduyrekin osatu zuen bikoa, Lasoren eta Olaizolaren kontra jokatzeko. Burundako pilotazaleen babesa izan zuen Ansak, baina, tamalez, ez zen nahikoa izan. Hasieran bi bikoteak parez pare aritu ziren eta seira berdindu zuten. Baina hortik aurrera Lasok eta Olaizolak distantzia hartu zuten, sakez 5 tanto egin baitituzten ia jarraian. Ansak eta Otaduyk ez zuten partida galdutzat eman eta jokaldi politak eskaini zituzten, baina, azkenean, 22 eta 13 irabazi zieten Lasok eta Olaizolak 48 minutu iraun zuen partidan.

Senior mailako finalean sakandarren esperantzak Ongay satrustegiarraren alde zeuden. Linzoainekin aritu zen sakandarra, Arrietaren eta Imazen kontra. Partida lehiatua aurreikusten zen, baina ez zuen kolorerik izan. Izan ere, Arrietak eta Imazek hasieratik hartu zuten aurrea. 7 eta 0 aurreratu ziren gipuzkoarrak, eta hasieratik bukaeraraino jaun eta jabe izan ziren. Azkenean gipuzkoarrek 7 tantotan utzi zituzten nafarrak.

46. Otadiko Kristo Deuna Txapelketa. Finalak:

Erakustaldia: Goikoetxea (Arbizu) **18** / Olaetxea (Arbizu) **8**
22 urtez azpikoak: Laso-Olaizola **22** / Ansa-Otaduy **13**
Eliteak: Arrieta-Imaz **22** / Ongay-Linzoain **7**

»

Zubieta zalantzan San Mateotarako

Ezkurdiarekin bikoa osatzen du etxarriarrak Logroñorako, baina asteazkenean mina hartu zuen Bermeon

Asteburuan hasiko da Logroñoko San Mateo Torneoa. Binakakoan 6 bikote lehiatuko dira. A multzoan Olaizola-Urrutikoetxea, Bengoetxea-Untoria eta Ezkurdia-Zubieta lehiatuko dira, eta B multzoan Irujo-Barriola, Altuna-Merino eta Victor-Albisu.

Baina Zubietaren parte-hartzea zalantzan dago. Asteazkenean, Bermeon, Irujorekin aritu zen Zubieta, Aimar Olaizolaren eta Albisuren kontra. Aspekoak 14 eta 9 galtzen ari zirenean partida bertan behera gelditu zen, Zubietak arazoak sentitu zituelako eskuineko belaunean. Ezkurdia eta Zubieta igandean dira hastekoak San Mateotako Torneoan, Bengoetxea VI.aren eta Untoriaren kontra, 17:00etan. Ikusteko dago etxarriarra aritzeko moduan egongo den.

Irristaketa

Iratxe Lapuente garaile

Extremadura Etxeko Irristaketa Trofeoa jokatu zen asteburuan

Larunbatean Extremadurako Etxeko Irristaketa Trofeoa jokatu zen Iruñean. Maila handiko proba izan zen, tartean Frantziako selekzioko kideek parte hartu baitzuten, Europako txapeldunak. Kategoria txikietan Sakana Irristaketa Taldeko Iratxe Lapuente txapelduna izan zen probetako batean eta Sakana taldeko ordezkariek lan txukuna egin zuten.


Iratxe Lapuente, erdian.

Automobilismoa

Olaztin motorrak berotzen

Lastailaren 3an jokatuko da Urbasako igoera, larunbatarekin. 14:00etan entrenamendua eginen da eta segidan probako bi txandak

Sakana Motorsport taldeak, hainbat entitateren laguntzarekin, 35. Urbasako igoera antolatu du lastailaren 3rako. Urbasakoa proba mitikoa da eta aurten Nafarroako Mendi Txapelketarako eta Sportech Iparraldeko Mendiko Openerako baliagarria izango da.

Proban izena ematea zabalik dago, (www.fotomotor.es).


Urbasako igoerako irteera, 2014an.

Areto futbola

Magna Gurpearen punteria falta

Magna Gurpeak 3 eta 4 galdu zuen Palma Futsalen kontra

Palma Futsalek bere aukerak ongi aprobetxatzen jakin izan zuen, talde berdearen atean punteria ona izan zuen eta jokoan zeuden hiru puntuak lortu zituen, Magna Gurpeari 3 eta 4 irabazi eta gero. Aldiz, talde berdeak gol aukera gehiago izan zituen baina ezin izan zuen kontrako atean behar bezala asmatu. "Eurek kontrako atean asmatu dute eta guk ez. Hori izan da bi taldeen arteko diferentzia. Horretaz aparte, orokorrean uste dut partida ona egin dugula" adierazi zuen Imanol Arregik.

Sailkapen orokorrean Catgas E. Santa Coloma da liderra, 3 punturekin. Magna Gurpea 13.a da, punturik gabe. Larunbatean, 21:00etan, Santiago Futsalen kontra ariko da Magna Gurpea, Galizian.

Txirrindularitza

Eman izena Sakanako XXII. Bizikleta Egunean!

Irailaren 27an izanen da, Ziordian hasi eta Irurtzunen bukatzeko. Aurretik izena eman behar da

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Burunda, Barranka eta Aralar txirrindularitza kluben laguntzarekin, eta hainbat babeslerekin -Irurtzun eta Ziordiko Udalak eta Nafarroako Gobernua- XXII. Sakanako Bizikleta Eguna antolatu dute irailaren 27rako. Dagoeneko 22. edizioa beteko du proba ez lehiakorra denak, eta betiko moduan "Sakana bizikletaz ezagutzen" leloa izango du.

Aurreko ostiralean egin zuten probaren aurkezpena Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak, Barranka Txirrindula Taldeko Alberto Ocañak eta Burunda Txirrindularitza Klubeko Gorka Mintegik. Sakanan txirrindularitzarako zaletasun handia dagoela azpimarratu zuten. Txirrindularitza egunaren helburuak betikoak zirela azaldu zuen kirol teknikariak. "Eskualdean txirrindularitza bulkatzea, goiz polita pasatzea proba ez lehiakor honetan, Sakanako gure herriak, kaleak, zubiak, ermitak, landaretza, basoak… bizikletaz ezagutzea, 41 kilometro lasaietan, eta bide batez, Sakanako herri ezberdinetako eta adin ezberdinetako jendearen arteko harremanak bulkatzea". Sakanako Bizikleta Egunean parte hartzeko gonbita inguruneko eskualdeei luzatu nahi diete, Iruñerrikoei, arabarrei eta gipuzkoarrei.

Altsasun aurkeztu zuten irailaren 27ko Sakanako XXII. Bizikleta Eguna.

Ziordia-Irurtzun (41,3 km)

Ziorditik abiatuko da martxa, goizeko 9:00etan. Pistetatik ibiliko dira gehienbat, eta Lakuntzan geratuko dira atseden hartzera. "Bokata norberak eraman beharko du eta antolakuntzak freskagarria eskainiko du" gaineratu du Gerrikagoitiak. Hamaiketakoaren ondoti Irurtzunera abiatuko dira. Sakanako bizikletaren festan parte hartzera animatu dituzte sakandarrak, "oso egun polita" delako.

Irailak 21, izena emateko azken eguna

Parte hartzea librea da eta doan, baina antolakuntzak autobus zerbitzua jartzen du txirrindulariak euren herrietan jaso eta Ziordira eramateko -goizeko 8:00etan aterako da Irurtzundik-, eta proba bukatuta, atzera ere txirrindulariak etxera eramateko. Bizikletak emateko kamioia egoten da ere. "Zerbitzu hauek erabiltzeko aurretik izena eman behar da. Irailaren 21a da azken eguna. Herri guztietan izena emateko tokiak jarri ditugu, baina, bestela, Mank-eko kirol zerbitzura hots egin daiteke (948 464 866). 10 urtetik gorakoek eman dezakete izena eta baita txikiagoak direnak ere, kasu honetan adinez nagusikoen laguntza dutela.

Mendi lasterketak

Audikana 5.a III. Axari Traileko ibilbide laburrean

Fidel Jimenez 32.a izan zen ibilbide luzean (25,4 km)

Igandean III. Axari Trail mendi lasterketa antolatu zuten Idiazabalen. Korrikalariek bi ibilbide zituzten aukeratzeko, luzea (25,4 km) eta laburra (16,4 km). Ibilbide luzea 226 korrikalarik osatu zuten eta Aritz Egea izan zen azkarrena (2:00:42). Fidel Jimenez etxarriarra 32.a sailkatu zen (2:33:19). Ibilbide laburrean, aldiz, 92 korrikalari iritsi ziren helmugara, Asier Oiarbide buru zela (1:20:25). Raul Audikana olaztiarra bosgarrena iritsi zen, ia bi minutura (1:22:17). Gainontzeko sakandarrei dagokienez, Gorka Verdugo 14.a izan zen (1:32:35), Javier Camuel 58.a (1:53:30), Jon Garasa 63.a (1:55:20), Josean Marquez 69.a (1:57:22) eta Ander Gurmindo 70.a (1:57:32).

Azanzaren Iturria garaile Altsasun

Iturriak Altsasuko 86. Txirrindularitza proba eta Euskaldun Torneoa irabazi zituen Altsasuko lasterketan

Ikusgarria eta emozioz betetakoa izan zen Sociedad Deportiva Alsasuak antolatutako afizionatuen mailako Altsasuko 86. Txirrindularitza Proba. Lasterketak Euskaldun Torneo prestigiotsua erabakitzen zuen eta lehia oso estua izan zen. Izan ere, Euskadi Fundazioko Mikel Iturriak eta Lizarteko Rafael Marquezek zuten jokoan Euskaldun Torneoa. Euskadi Fundazioko txirrindulariak hasieratik ihesaldietan sartzen saiatu ziren, baina Lizartek lan gogorra egin zuen ihesaldi guztiak zapuzten. Euskadi Fundazioako Mikel Iturria gailendu zen helmugako esprint estuan, bere taldekide Mikel Aristiren aurretik. Altsasuko proba irabazteaz gain, afizionatuen mailako Euskaldun Torneoa irabazi zuen Iturriak, estatu mailako torneo ezagunenetako bat. Jorge Azanzak zuzentzen duen Euskadi Fundazioa izan zen Altsasuko lasterketako talde onena. Bestalde, Rural Kutxako Carlos Anton Jimenez laugarrena sailkatu zen, denbora berean.

Azanza pozez zoratzen

Jorge Azanzak aurten hartu du Euskadi Fundazioko taldea zuzentzearen ardura. "Altsasukoarekin 30 garaipen lortu ditugu, gainera 10 txirrindulari ezberdinekin. Euskaldun Saria irabazi du Mikel Iturriak, taldeka ere irabazi dugu eta gainera hori guztia herrian... Esana nien ilusio handia egiten zidala nire herriko lasterketan ongi egitea. Oso mentalizatuta etorri dira eta kristoren lana egin dute. Oso pozik nago" adierazi zuen altsasuarrak. Denboraldiaren balorazioa bikaina egin zuen Azanzak. "Taldea osatzen egin dut lana eta erakutsi diet talde lanarekin garaipenak asko izango direla" azaldu zuen altsasurrak. Hurrengo denboraldian Euskadi Fundazioko zuzendari lanetan jarraituko du.

Rural Kutxaren zorte txarra

Aldiz, "zorte txarra" izan zutela adierazi zuen Rural Kutxako Alberto Mazkiaranek. "Lasterketan ongi gindoazen, David Lopez gure esprinterrarekin aukerak genituen. Baina zorte txarra izan du Lopezek zoruan zegoen txapa batekin, deskolokatu da eta tropelean esprinterra jokatzeko zuen tokia galdu du. Esprintak horrela izaten dira, eromena eta loteria bat" azaldu zuen. Dena den, aurtengo denboraldiarekin oso kontentu dago altsasuarra. "20 proba inguru irabazi ditugu baina kantitatearekin baino kalitatearekin gaude kontentu. Espainiako Kopa irabazi dugu, Espainiako lau txapelketetatik hiru irabazi ditugu, hiru itzulitan gailendu gara – Kantabria, Palencia eta Leon– eta lasterketa prestigiotsuak irabazi ditugu, Balenciaga Memoriala tartean. Horregatik oso pozik gaude, denboraldi errepikaezina izan da hau" nabarmendu zuen. Rural Kutxa afizionatuetatik hiru txirrindularik eginen dute salto Rural Kutxa talde profesionaletara, Hector Saez tartean.

Rural Kutxako Mazkiaran.

+ www.guaixe.eus

Futbola

Etxarri, preferente mailari eustera

Preferente mailara igo da Etxarri, eta maila honi eustea da aurtengo erronka

Pozik daude Etxarri Aranazko Futbol Klubean. Preferente kategoria berriari tamaina hartzen ari dira. Kategoria berria da, baina, taldea, betikoa. Izan ere, aurreko urteko plantilla gehienak jarraitzen du, eta hiru futbolari berri gehitu dira Etxarriko futbol familiara. Ekhi Etxeberria eta Markel Azkona berriro etxera bueltatu dira, eta Altsasuko taldetan ibili den Aitor Saez olaztiarrak aurten Etxarrin ibiltzea erabaki du.

Entrenatzailea, Fernando Montori, aurreko denboraldikoa da. "2010ean Montorirekin preferentera igo zen Etxarri. Gero mailaz jaitsi ginen, entrenatzailez aldatu… Aurreko denboraldian berriro Etxarrira etorri zen Montori, eta berriro ere berarekin preferentera igo ginen. Taldean jarraitzen du, giroa bikaina da eta oso gustura gaude" adierazi digu Etxarriko juntako kide eta preferente mailako bigarren entrenatzaile Iosu Murgiondok.

Aurten preferente mailari eustea izanen da helburua. "Preferente mailako hurrengo kategorian, maila autonomikoan lehiatzea oso garestia izanen litzateke gurea bezalako klub batendako, ia ezinezkoa. Gure helburua da preferentean mantentzea eta ahalik eta urte gehien kategoria honi eustea. Maila autonomiko kategoria berri hori sortzerakoan, oraingo preferentea ez da lehengokoa. Maila erregional sendo bat da gehiago. Baina denboraldia hasi berri dugu eta gauza horiek aurrerago ikusten dira. Pentsatzen dugu Iruñeko taldeak izango direla faboritoak, baliabide gehienak dituztelako, baina ikusteko dago" azaldu du Murgiondok.

Etxarrik Infanzonesen kontra bana berdinduz hasi zuen denboraldia aurreko astean. "Aukera asko sortu genituen. Sentsazioak onak dira. Taldea ilusioarekin dago. Baina hori ez da berria. Gehienak etxarriarrak gara eta inguruko herrietakoak. Horregatik giroa beti oso ona izaten da nahiz eta gauzak hobe edo okerrago joan, eta gehienbat futbolaz disfrutatu egiten dugu. Aldageletako giroa bikaina da eta horrek laguntzen du" gaineratu du Murgiondok. Aurten Lagun Artearen kontra jokatuko dute derbya. "Oso harreman ona dugu Lakuntzakoekin Polita izango da euren kontra aritzea" aitortu du etxarriarrak.

Etxarri Aranatz 2015-2016

Atezainak: Ivan Gorriz eta Ekhi Etxeberria. **Atzelariak:** Luis Goñi, Xabier Urrestarazu, Unai Artieda, Julen Iragi, Iñaki Razkin, Markel Erdozia, Markel Azkona eta Ander Zelaia. **Erdilariak:** Pablo Jauregi, Gentza Erdozia, Alain Iriarte, Ivan Cerezo, Asier Urkia eta Aritz Ikobaltzeta. **Aurrelariak:** Xabat Goikoetxea, Mikel Goikoetxea, Aitor Saez eta Javi Rueda. **Entrenatzailea:** Fernando Montori. **Bigarren entrenatzailea:** Iosu Murguiondo. **Delegatua:** Jose Javier Urkia " Arretxe ".

120 neska-mutiko futbolari

Preferente mailako taldeaz aparte, Etxarrik 2.mailako jubenilen taldea du, kadete mailakoa, haurren mailakoa eta kimuen mailakoa. Guztira 120 neska-mutiko inguru trebatzen dira futbolean. Klubaren zuzendaritzari dagokionez, ez dago aldaketarik. Eduardo Elso da presidentea, Iñaki Elvira presidenteordea, idazkaria eta diruzaina, eta Jose Guillorme, Xabier Errazkin, Francisco Gomez, Josu Murgiondo eta Jose Javier Urkia bokalak. Josu Murgiondo preferente mailako bigarren entrenatzaile izanen denez, Jose Guillormek hartu du oinarri-futboleko taldeen ardura. Etxarri klubaren denboraldiko aurrekontua, talde guztiena, aurreko urtekoa da, 12.500 eurokoa.

Haurren mailako torneoa

Etxarrik haurren mailako futbol torneoa antolatu du bihar, larunbatean. Erreala, Osasuna eta Alaves klubetako haurrak lehiatuko dira, 16:00etatik aurrera.

+www.guaixe.eus

Asteburuko partidak

Preferente maila:
Etxarri Aranatz – Gares (Igandean, 17:00etan, Etxarrin)
Lagun Artea – Mutilbera (Igandean, 17:30ean Lakuntzan)

Erregional Imaila:
Itaroa Huarte – Altsasu: (Larunbatean, 20:00etan, Uharte Iruñean)

Aurreko asteko maitzak:

Infanzones 1 – Etxarri 1
Bidezarra 1 – Lagun Artea 0
Altsasu 0 – Lagunak 0

kultura >>

Udako argazki onena aukeratzeko garaia

Gaurtik 24ra bitartean Udako Argazki Lehiaketara aurkeztutako irudiren baten aldeko botoa eman dezakezu www.guaixe.eus-en

Sakandarrek udan ateratako argazki bilduma ederra jaso dugu www.guaixe.eus web orrian. Udako Argazki Lehiaketara argazkiak aurkezteko epea gaur bukatzen da. Eta gaur bertan hasten da web bidezko bozketa, hilaren 24ko 14:00ak arte zabalik izanen dena. Lehiaketara aurkeztutako gogoko argazkiaren alde egin daiteke. Babes gehien lortzen duen argazkiaren egileak Iruñeko Wayout Room Scape-erako bi sarrera eskuratuko ditu.

Publikoaren sariaz aparte, epaimahaiarena ere izanen da. Haien deliberazioak lehiakide bati Turkiarako bi pertsonarendako bidaia emanen dio, Eroski Bidaiak-ek emana. Pertsona bakar batek bi sariak ezin dituenez irabazi, bi sarituen izenak irailaren 25ean publikatuko ditugu Guaixe astekarian eta www.guaixe.eus web orrian.

92 argazki

Aurkeztu ziren lehiaketara erredakzioa ixteko garaian.

Kultur astea gaur abiatuko dute Olatzagutian

Osteguna bitartean antzerkia, hitzaldiak, sukaldaritza eta ikuskizunak iragarri dira

San Migel festen aurreko astea bete betea heldu da Olatzagutira. Kultur astea dela eta, astelehenean ez beste, egunero saio bat programatu du udaleko Kultura Zerbitzuak. Guztiak kultur etxean izanen dira.

Mitad y mitad

Irailaren 18an, ostiralean, 22:30ean. Jose Ramon Soroiz eta Iker Galartza dira komedia beltz horren protagonistak. Gaua. Urteetan gora egin arren, eta gripea eta enbolia izanda ere, hiltzeko batere gogorik ez duen ama. Bi seme ditu. Haietako bat arduratu da gaixoaldi luzean ama zaintzeaz. Heriotza gertu dela ikustean beste anaiari hots egin dio. Hura hondoa jotzen ari den enpresa baten jabea da. Tartean, asteazkenero bisita egiten duen Jehovaren Lekukoak taldeko kidea. Herentziaren banaketaz eztabaidatuko dute. Derrigorrean, etxea saldu beharrean izango dira, eta gau amaiezin batek ordura arte kontatu gabeko sekretuak azaleratuko ditu.

Alucina

Irailaren 19an, larunbatean, 20:00etan. Jorge Astyaro hipnotista eta mentalista mexikarrak "dibertsioa eta didaktikotasuna" uztartzen duen ikuskizuna ekarriko du. Barre egiteko aukera emanen du funtzioak.

Erpurutxo

Irailaren 20an, domekan, 17:00etan. Inuzentekeria ukitua duen unibertso fantastiko hori birsortuko dute aita batek eta aitona batek. Dena eskuko hatz lodia altxatu eta irudimena aske uztean hasiko da. Teatro Paraisok ipuin klasiko bat dakar, "edozein arotan garaikidea izateko ahalmena duelako". Konpainiak abandonuari garrantzia ematen dio eta, testuinguru gisa, egungo gizartearekiko paralelismoak agerian uzten dituen egoera bat jarriko du.

Sushi

Irailaren 23an, asteazkenean, 19:00etatik 21:00etara Olatzagutiko kultur etxean. 18a izena emateko azken eguna. Sushia ozpinetan egindako arrozaz (shari) eta beste osagaiez (neta) egindako Japoniako platera da. Tailerreko parte-hartzaileek jakia prestatzen ikasi eta haren historia eta nutrizio ezaugarri osasungarriak ezagutuko dituzte. Izena emateko azken eguna gaur da. Udaletxean eman behar da eta 4 euro pagatu behar dira.

Salud y bienestar. Estimulación neuronal

Irailaren 22an, asteartean, 20:00etan. Estimulazio neurala diziplina bionaturala da, bai eta nork bere buruari tratamendua egiteko teknika ere, medikuntza tradizionalaren osagarri. Eskuak modu kontzientean erabiliz, estimulazio neuralak zenbait nerbio-bukaeratan eragiten du, sistema immunologikoa indartuz, nerbio-sistema orekatuz eta odolaren kimika arautuz.

Disfrutar con seguridad en la montaña

Irailaren 24an, ostegunean, 20:00etan. Alberto Zeberio larrialdietako hezitzaile eta mendi teknikariak mendira segurtasunez joateko planifikazio onaren gakoak azalduko ditu. Ikus-entzunezkoen laguntzaz kasu eta esperientzia adierazgarrien berri emanen du, guztia mendizaletasunaz ziurtasunez eta segurtasunez gozatzeko.

bazterretik

Izaskun Beunza

Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoa

Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren egoitza berria Ibaetako campusean eraiki zen.

Mikel Garai arkitektoak 1992an proiektatu zuen eskolaren gaur egungo eraikin-egoitza, arkitektura postmoderno garaiko Tendenza mugimenduaren barnean sailka daitekeena. Ikastegiak bost solairu ditu, sotoa barne. Bertan, ikasgelez aparte, paraninfo edo ospakizunaretoa (Luis Peña Gantxegi Aretoa deitua), kalkulu-zentroa, maketak egiteko aretoak eta bestelako ikasgelak daude. Liburutegia laugarren eta azken solairuan dago. Altura bikoitzeko espazio zabala da, guztiz esanguratsua, bertan jasotzen diren lanen neurrikoa. Zuhurtasun handiz proiektatutako sabai-leihoetatik sartzen den argiak espazioaren handitasuna nabarmentzen du. Kafetegia garai batean azkeneko solairuan zegoen, estalki lau erabilgarriak ahalbidetzen duen kanpo espazioari probetxu atereaz.

Arkitektura egoitza barnetik zein kanpotik dago diseinatuta. Diseinuak egitura argi bati jarraitzen dio, jatorrizko sarreraren aurreko plazan hasten dena eta paraninfoan bukatu. Egitura horrek "parvis" jasoan du jarraipena, hots, eliz atariaren aurreko espazio irekian, eta bertan jatorrizko etxolaren metafora agertzen da: arkitekturaren monumentu-sinbolikoa, hitza eta historiaren toki, Joxean Artzeren poesiak azpimarratuta.

Etxolaren presentziak eraikinaren fatxada nagusiari neurria ematen dio, sarrera ate handi baten moduan diseinatuta baitago, atondoari zein barneko kaleari sarbide ematen diona. Barneko kalea, behe solairuan kokatzen den altuera hirukoitzeko espazioa da, espazio aktiboa, harremanetarako leku, proiektuen erakusketatoki, bizikidetzarako eta komunikaziorako gunea. Egituraren amaieran paraninfoa dago, unibertsitatearen batzar aretoa izateaz aparte, hiriak antolatutako zenbait kultur ekitaldiren antzezlekua dena. Hainbat espazio biltzen dituen egitura honek arkitektura-ibilbide bat osatzen du, zeinak kanpoaldea eraikinaren bihotzarekin lotzen duen.

2013ko udan eraikinari sarrera aldatu zioten, enpresa-eskolaren albora lekualdatuz. Erabaki honek kritika ugari jaso izan ditu. Egia da bai, Arkitektura, Irakasle eta Enpresa Eskolen arteko harremanguneamankomuna bilakatu dela kanpoko espazioa. Dena den, pertsonalki bat nator eraikinaren egilearekin. Arkitektoak obren kontra mintzatu eta aldaketak jatorrizko eraikinaren egitura argia erabat desitxuratzen duela defendatu izan du behin eta berriz.

Olatzagutiko kultur ekitaldietarako sarrerak, saretik

Olatzagutiko Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatzen dituen ekitaldietarako sarrerak orain arte udaletxean edo emanaldiaren egun berean kultur etxean eskuratu zitezkeen. Pasa den asteaz geroztik Olatzagutiko kultur saioez gozatu nahi dutenek sarrera eskuratzeko aukera berria dute: udalaren web orria, www.olazti.com. Han sartu eta eskuinean dagoen kultur etxea, sarrerak bannerrean klikatuz erosi daitezke sarrerak.

Kaleren margolanak Iruñean ikusgai

Jokin Alegria, Kale, margolariak bere musikarien seriea Iruñeko Zentral kafe antzokian du ikusgai. Lakuntzarrak musikari ezagunen erretratu errealistak zintzilikatu ditu. Internetetik ateratako argazkietan oinarrituta egin ditu erretratu horiek Kalek. 2009an abiatu zuen seriea.

Sakanako kirol eskaintza

Bertatik bertara, badago zer aukeratu!

Kirola praktikatzea osasuntsua dela ez du inork zalantzan jartzen. Adin eta behar ezberdinei erantzuteko, Sakanan bertan opa daitekeen kirol eskaintza anitza da. Bertatik bertara, urrutira joan gabe.

Adin guztietara egokitzen diren kirol jarduerak eskaintzen dituzte gure bailaran dauden kirol zentroek. Txikienetatik hasita, eskolaz kanpoko jardueretako bat kirola izatea komenigarria dela diote hezitzaileek. Karatea, tenisa, futbola, esku pilota, borroka-arteak, soinketa... Haur bakoitzari gehien gustazen zaiona erabaki ahal izateko, denetatik pixka bat probatzea izaten da hoberena. Janariekin bezala, gustoa hartu arte.

Helduentzat ere aukera zabala dago: yoga, spinninga, aquagyma, aerobica, soinketa lasaia, yoseikan budoa, horren modan dagoen zumba... Pertsona bakoitzak jakin behar du zein den gehien komeni zaion ariketa fisikoa. Komenigarria da profesional batengana jotzea ere, aholkuak jasotzera, kirola praktikatzea osasungarria delako, zalantzarik gabe, baina neurrian. Lesioak guregandik urrun nahi baditugu behintzat.

Bizi kirola euskaraz!



Gasteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria:	13%	8%	8%	5%	28%	65%	33%
Min:	6	8	8	7	9	8	8
Max:	19	19	19	21	16	17	17

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	27	11	7.7
Etxarri A.	26.1	8.1	6.7
Altsasu	26	8.5	1.5
Aralar	17.7	7.2	11.3
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia>>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
21	28	4	13

>>11 galdera

Patxi Flores

Sakanako AEK-ko arduraduna

Testua: Maider Betelu Ganboa

1.Gaur mustuko duzue Itsasi Euskaltegi berritua. Azken egun hauek eromena izan dira?
Bai, obrako azken ukituekin bueltaka gabiltza. Matrikulazio kanpaina obraren azkeneko lanekin tokatu zaigu: garbiketa, altzariak jarri, material guztia ekarri…

2.Zenbat urte darama Itsasi euskaltegiak Altsasun?
Bi fase daude. 1986an etxe bat erosi zen San Juan kalean, euskaltegia jartzeko. Baina etxe zaharra zen eta Sakanako euskaltegiak ezin zion obrari aurre egin. Horrela, etxe hori saldu egin zen eta Gartzia Ximenezeko AEK-ko egoitza erosi zen, lehen pisuan zegoena. 1996ko otsailean mustu zen, duela 19 urte. 130 metro inguruko pisua zen, 4 ikasgela, irakasle gela, bulego txikia eta erabilera anitzeko gela zuena, komuna barne. Eta orain arte bertan egon gara.

3.Egoitza txikia geratu zitzaizuen?
Bai, txikia eta zaharkitua ere. Nahiz eta azkeneko bost urte hauetan joera aldatu eta jendea goizez ikastera etorri, aurretik jende gehiena arratsaldez etortzen zen euskara ikastera. Espazio arazoak genituen. Irakasle gela ikasgela bilakatzen genuen, udalari gelak eskatzen genizkion… Gainera, bilerak, hitzaldiak eta jolasak egiteko ez genuen tokirik. Lehen pisuan geunden, igogailurik gabe. AEK erakundeari gure beharraren eskaera egin genion eta onartu zuten.

4.Beheko bajera erosi eta lehengo pisuarekin batuta espazio zabala du orain euskaltegiak.
Beste leku batzuk ere begiratu genituen, baina beste toki batera joanez gero ikusten genuen gure betiko lokala saltzea oso zaila izango genukeela. Gainera, gure lekua ona da; AEK ikusgarri egiteko kale aproposa da gurea, Gartzia Ximenez kalea, eta jende guztiak badaki non gauden; gure erreferentzia badute. Eta beheko bajera erosi eta pisuarekin lotzea erabaki genuen.

5. Nolakoa da euskaltegi berritua?
Orain sarrera beheko kaletik dauka, ez da lehenengo pisura igo behar. Behin sartuta, eskuin aldera harrera gunea dago eta ondoan irakasle gela. Eta ezker aldean gela anitza dago. Handia da, eta manpara batekin bi espaziotan banatu daiteke. Bertan pantaila jarri daiteke, hitzaldiak eman, klaseak eman… Eskailera batzuetatik lehenengo euskaltegia zenera igoko gara. Goian dena gelatan banatu dugu. Guztira 6 gela daude. Behekoarekin 7, 8tan bihur daitekeena.

6.Orain gela horiek betetzea da erronka. Nola doa matrikulazio kanpaina?
Irailaren 23an despedituko da kanpaina eta 24an hasiko dira klaseak. Kanpaina aurreko urtearen antzera doa kopurutan, ongi. 100 ikasleren bueltan egongo gara. Ea egoitza berriarekin ea jende gehiago animatzen den! Gaur mustuko dugu eta uste dugu honek nolabaiteko bulkada emango diola matrikulazioari. Euskaltegi berria da, kalearen altueran dago eta ikusgarriago dagoela uste dugu. Nahi duen guztia pasa dadila euskaltegia eta gure zerbitzua ezagutzera.

7. Euskara ikasteko aukerak ikasleen beharretara moldatzen dituzue, ezta?
Bai, batetik ohiko taldeak daude; batzuk egonkortuta daude eta beste berri batzuk sortuko dira. Beste aukera bat auto-ikaskuntzarena da, ordutegiekin arazoak dituztenendako. Aurten hirugarren edo laugarren urtea dugu eta uste dut goraka doan kontua dela.

8.Ikasleak euskaltegia mustutzeko gogoz daude?
Bai, erakutsi diegu eta gustatu zaie. Gogoz daude.

9. Eta gaur mustutze ekitaldia!
Bai, 19:00etan. Euskalgintzako jendea gonbidatu dugu, Kontseilua, Sakanako euskara taldeak, Udalak, ikasleak eta ikasle ohiak, irakasleak… Aurreskua, zinta mozketa, kantuak eta bertsoak izanen dira eta AEK-ko Nafarroako arduradunak eta nik neuk hartuko dugu hitza. Lau minutuko argazki bideo bat ikusi eta ondoren auzatea izanen da.

10.Sakandarrak gaurko mustutzera gonbidatuko ditugu?
Bai, nahi duen guztia etor dadila, ongi etorria izanen da.

11.Ez da ahaztu behar garrantzitsuena jendea euskalduntzea dela.
Jendeak euskara ikas dezala, hori da garrantzitsuena. Hau guztia berritu dugu euskara ikastea erosoago izateko. Orain ez dago oztopo arkitektonikorik. Ez dago aitzakiarik euskara ikasteko.